

2018ko LEMOIZEKO EUSKARAZKO UDALEKUAK

ekainaren 25etik uztailaren 13ra bitartean

9:30 - 13:30 edo 9:00 – 14:00

3-5 urte // 6-12 urte

Udalekuetan parte hartzeko baldintzak:

- 1. Izena emateko epea eta tokiak: maiatzaren 8tik 18ra bitartean, Lemoizko Kultur Etxean izen-emate orria behar bezala beteta. Eskaera orria betetzean, zuen zozketa-zenbakia jasoko duzue.**
2. Izena emateko orrietan zuen seme-alaben ordutegia aukeratu behar duzue: 9:00etan ala 9:30etan sartu eta, 13:30etan ala 14:00etan irten.
- 3. Nori zuzendua: 2013ko urtarrilaren 1etik 2015ko abenduaren 31ra bitartean jaiotako eta Lemoizen erroladatutako ume guztiei, eta 2006eko urtarrilaren 1etik 2012ko abenduaren 31ra bitartean jaiotako eta Lemoizen erroladatutako ume eta gaztetxo guztiei.**
4. Udalekuetan parte hartuko dutenak bi taldetan banatuko dira: **3-5** eta **6-12** urtekoak. Guztira dauden 50 plazak bi adin-tarte hauen artean banatuko dira. Izena ematean, adin-tartean oinarritutako **zein taldetan hartu nahi den parte zehaztu** beharko da (3-5 ala 6-12).
5. Eskatzaileak plazak baino gehiago izanez gero, **zozketa publikoa** egingo da. **Eskaera-orri bakoitzeko, gehienez ere 3 izen** ager daitezke. Haur bakoitzak inskripzio orri bakarrean eman beharko du izena. Zozketan banan-banan aterako dira papertxoak plaza guztiak (50) bete arte. Horrela eginez gero, gerta daiteke azken plaza esleitzean, inskripzio orri batean dauden hiru edo bi ume ezin sartzea eta hirurak edo biak (kasuak kasu) kanpoan gelditzea eta hurrengo papertxoa hartu behar izatea.
- 6. Zozketa eguna: maiatzaren 21ean**, 17:30etan, Lemoizko Kultur Etxean.
- 7. Zozketaren emaitzari** eta ordainketa epe zein moduari buruzko informazioa eskuragarri egongo da **maiatzaren 28an** Lemoizko Udaleko web orrian eta Lemoizko Kultur Etxean. Euskara Zerbitzuak ere emaila bidaliko die izen-emate orrietan haien emaila jarri duten familiei; baina ez ditugu familiak banan-banan deituko.

8. Matrikula zenbatekoa ordaintzeko eta agiriak aurkezteko epea: **maiatzaren 28tik ekainaren 1era bitartean**. Dokumentazioa (bankuko ordainagiriaren kopia eta osasun txartelaren fotokopia) Kultur Etxera eraman beharko da. Familia ugariko umeek edo oinarrizko errenta jasotzen duten familietako umeek dagokien ziurtagiria aurkeztu beharko dute.
9. Onartuta dauden umeen behin betiko zerrenda eskuragarri egongo da **ekainaren 8an** aurretik adierazi dugun tokietan, eta emailaz ere bai.
10. **Familiekin eta udalekuak antolatzen dituen enpresarekin batzarra** egingo dugu, gurasoek haien seme-alabek izango duten egitaraua, ekintzak eta beharrianak hobeto ezagutzeko. Batzar hori **ekainaren 11ko astean** izango da Kultur Etxean, eta aurrerago jakinaraziko ditugu eguna eta ordua.

11. Kuotak:

Familiek bi ordutegien artean bat aukeratu beharko dute, eta horren araberako tasa ordaindu. Umeak ezin dira aukeratu ez den ordutegitik kanpo joan.

9:00-14:00	9:30-13:30
<ul style="list-style-type: none"> • Prezio, plaza bakoitzeko (arrunta): 60,00 € • Prezioa, plaza bakoitzeko (fam. ugaria): 40,00 € • Prezioa, plaza bakoitzeko (dbe): 20,00 € 	<ul style="list-style-type: none"> • Prezioa, plaza bakoitzeko (arrunta): 50,00 € • Prezioa, plaza bakoitzeko (fam. ugaria): 30,00 € • Prezioa, plaza bakoitzeko (dbe): 20,00 €

Dirua itzultzea: ezarritako prezioak behin ordainduz gero, ez da dirua itzuliko honako kasuetan izan ezik: gaixotasun, istripu edota beharrian larriren bat izatea. Hori gertatzen baldin bada, umeak dagokion ziurtagiria medikoa ekarri beharko du, eta orduan itzuliko da matrikularen zenbatekoa.